

# KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2023ko martxoa

## Aurkibidea

1. Merkataritza eta zerbitzuak
  2. Inflazioa
  3. Kanpo merkataritza
  4. PMI konposatua
  5. Sentimendu ekonomikoa
  6. Batzordearen aurreikuspenak
- Eranskina

### 1. EAEko merkataritzako salmentek pandemiaren aurreko maila berreskuratu dute.

Gainerako zerbitzuek ere nabarmen egin zuten gora 2022an.

### 2. Urtarrilean inflazioa bi hamarren hazi zen Euskadin.

Gorakada hori, neurri batean, erregai litroko 20 zentimoko laguntzaren amaierak azaltzen du.

### 3. Euskal esportazioen errekor berria, 32.500 milioi eurotik gorakoa.

Inportazioen truke ordaindutako zenbatekoa ere serie historikoko handiena izan zen.

### 4. PMI konposatuak bi puntu egin zuen gora otsailean.

Azken bederatzi hilabeteetako mailarik altuenean kokatu da.

### 5. Euroguneko sentimendu ekonomikoa egonkortu zen otsailean.

Indizea 99,7an kokatu zen, urtarrileko datua baino hamarren bat beherago.

### 6. Europako ekonomiak atzeraldia saihestuko du 2023an.

Europako Batzordeak puntu erdi bat igo du Europar Bataunarentzat aurreikusten duen hazkundea.




# ZERBITZUEN KOIUNTURA INDIZEA

## EAEko merkataritzako salmentek pandemiaren aurreko maila berreskuratu dute

### MERKATARITZA INDIZEA EUSKADIN

Urteko batez besteko balioa

2022KO HAZKUNDEA  
**%3,0**




Eustatek argitaratutako informazioaren arabera, zerbitzuek emaitza ona eskuratu zuten 2022an. Hain zuzen ere, EAEko merkataritza indizea, prezio iraunkorretan, %3,0 igo zen urteko batez bestekoan eta azken hamarkadako mailarik altuenean kokatu zen. Unean uneko prezioetan, berriz, igoera %14,5era iritsi zen. Bi tasen arteko aldeak agerian uzten du prezioek 2022an izan zuten gorakada handia. Beste aldetik, bi urte

behar izan dira merkataritzak pandemiaren lehen urtean galdutako gutzia berreskuratzeko. Handizkako merkataritzak eta txikizkakoak emaitza positiboak lortu zituzten iaz. Lehenengo kasuan, aldakuntza tasa %4,8koa izan zen prezio iraunkorretan, eta bigarreanean, berriz, hazkuntza %2,9ra iritsi zen. Salbuespena ibilgailuen salmenta izan zen, %7,4 gutxitu baitzen, eta lau urtez jarraian beherakadak jaso ditu.


### HANDIZKAKO MERKATARITZA INDIZEA

Urteko batez besteko balioa




### TXIKIZKAKO MERKATARITZA INDIZEA

Urteko batez besteko balioa



## ZERBITZUEN INDIZEA. GUZTIRA


Urteko batez besteko balioa



Bestalde, zerbitzuen indizeak aldakuntza tasa oso esanguratsuak izan zituen urteko batez bestekoan (%11,4 prezio iraunkorretan), eta azken urteetako balioen gainetik kokatu zen. Alde positiboan, garraio eta biltegiaritze adarraren une ona nabarmentzen da, bi urtean jardura %30 baino zertxobait gehiago handitu baitzen. Aitzitik, ostalaritza urrun dago pandemiaren aurretik izan zuen maila berreskuratzetik, 2022an %23,2ko merezimenduzko hazkundea eskuratu zuen arren. Zerbitzu laguntzaileek antzeko bilakaera izan zuten, hazkunde handikoa, baina 2019ko mailatik urrun oraindik.


## ZERBITZUEN INDIZEA. GARRAIOA

Urteko batez besteko balioa




## ZERBITZUEN INDIZEA. OSTALARITZA

Urteko batez besteko balioa




## ZERBITZUEN INDIZEA. INFORMAZIOA

Urteko batez besteko balioa



## ZERBITZUEN IND. ZERB. LAGUNGARRIAK

Urteko batez besteko balioa




Iturria: Eustat

# INFLAZIOA

## Urtarrilean inflazioa bi hamarren igo zen Euskadin

### KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Urtarrilean, KPIa bi hamarren igo zen EAEn, %5,4tik %5,6ra. Horrela, eten egin da bost hilabetez jarraian aldakuntza tasa murrizteko erakutsi duen joera. Igoera txiki hori baldintzatuta egon zen, batez ere, Espainiako gobernuak ezarri zuen erregai litroko 20 zentimoko konpentsazioari joan den abenduaren 31an amaiera eman zitzaiolako.


### KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2021	2022	2023ko urtarrila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,1	8,1	5,6	5,6
Azpiko inflazioa (%79,5)	1,0	5,1	7,3	5,8
- Elikagai landuak (%15,8)	1,4	10,2	16,5	2,6
- Industria ondasunak (%22,7)	1,0	4,7	6,8	1,4
- Zerbitzuak (%41,0)	0,7	3,3	3,9	1,8
Hondar inflazioa (%20,5)	12,1	20,0	-0,9	-0,2
- Landu gabeko janariak (%9,3)	2,6	10,8	10,0	0,7
- Energia (%11,2)	21,3	28,2	-9,9	-0,9


### AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




### HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



## BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA


Hileko batez bestekoa. Dolarrak upeleko



Era berean, elikagaien prezioaren igoera nabarmendu behar da, talde inflaziogileena izaten jarraitu baitzuten, nahiz eta urte arteko hazkundea apur bat moteldu zuten. Zehazki, %15,1etik %15,0ra jaitsi ziren, neurri batean oinarritzko produktu batzuen BEZaren jaitsieragatik. Hain zifra altuetan mantentzen diren elikagaiekin, azpiko inflazioa %7,3koa izan zen, datuak daudenetik izan den erregistrorik altuena baita. Beraz, urtarrilean inflazioaren hazkundea prezioen nukleo egonkorrenetik etorri zen, eta hondar

## TTF GAS NATURALAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



inflazioaren aldakuntza (elikagai freskoak eta produktu energetikoak biltzen dituen) negatiboa izan zen (-%0,9). Inflazioaren igoeran eragina izan zuen beste talde bat garraioa izan zen, %5,7ko tasarekin, abenduan baino 2,2 puntu handiagoa, erregaien prezioaren igoeraren ondorioz, Gobernuaren hobaria ezabatzeagatik. Azkenik, jantzien eta oinetakoen taldea %1,9tik %3,2ra igaro zen, merkealdiak aurreko urtekoak baino txikiagoak izan baitziren.

## KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2023ko urtarrila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>5,6</b>	<b>5,9</b>	<b>8,6</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	15,0	15,4	16,3
Edari alkoholdunak eta tabakoa	7,4	8,2	5,6
Jantziak eta oinetakoak	3,2	3,6	4,9
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-9,5	-8,4	11,9
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	7,7	7,9	9,1
Osasuna	1,6	1,2	2,5
Garraioa	5,7	5,6	7,2
Komunikazioak	2,4	2,3	-0,2
Aisia eta kultura	2,7	2,5	4,2
Hezkuntza	1,9	1,5	4,2
Jatetxeak eta hotelak	6,5	7,8	8,2
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	5,3	5,0	5,1

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.


## Euskal esportazioen errekor berria, 32.500 milioi eurotik gora

### ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Milioi euro

BATEZ BESTEKO HAZKUNDEA  
2022  
**%26,8**


Ez Errusiak Ukraina inbaditu izanak, ez inflazio handiak, ez banku zentral nagusien politika egokitzailerearen amaierak, ez zuten eragotzi EAEko esportazioek 2022. urtea beste errekor batekin ixtea. Zehatzago azalduta, iaz euskal enpresek 32.538,4 milioi euroko balioa zuten ondasunak saldu zituzten atzerrian, hau da, 2021ean baino %26,8 gehiago. Produktu energetikoen salmenta izan da zenbateko



horren bultzatzaile nagusietako bat, %108,8 handitu baitziren; baina, egia esan, esportazio ez-energetikoak ez ziren atzean geratu, eta, hazkunde tasa hain esanguratsua lortu ez arren, oso igoera nabarmena (%22,2) eskuratu zuten. Bestalde, inportazioak ere maximoetan kokatu ziren eta 29.412 milioi eurora hurbildu ziren. Horren guztiaren ondorioz, guztizko saldoa 3.127 milioi eurokoa izan zen.


### ESPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK.

Milioi euro



### ENERGIAKO ESPORTAZIOAK.

Milioi euro



## ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. 2022

Herraldea	%
Alemania	%15,4
Frantzia	%15,2
AEB	%6,9
Herbehereak	%6,2
Erresuma Batua	%6,1
Italia	%5,4
Belgika	%5,4
Portugal	%4,5
Polonia	%2,3

EAEko produktuek beren merkatu kuota sendotu zuten Europar Batasunean, saldutako guttizkoaren %64,0 hara bideratzen baita dagoeneko, eta, orobat, superabit handia du eremu horretan. Alemania, %15,4ko merkatu kuota batekin, izan zen EAEko salmenten helmuga nagusia, eta, haren atzetik, Frantzia oso hurbil kokatu zen, lehen postua gutxigatik galdu baitzuen (%15,2). Aitzitik, saldo defizitario handiena Txinarekin izan zuten,

## ESPORTAZIOEN BANAKETA. 2022


Arantzel taldea	%
Ekipamendu ondasunak	%41,4
Makinak eta aparatuak	%17,2
Garraio materiala	%24,3
Ohiko metalak eta manuf.	%24,0
Produktu mineral, energetikoak	%8,8
Plastikoa eta kautxua	%6,8
Nekazaritzako produktuak	%6,2
Produktu kimikoak	%3,4
Papera	%2,8

EAEko eragileek 1.454 milioitik gorako defizita baitute herrialde horrekin.

Adar esportatzaile nagusiei dagokienez, ez zen alde handirik egon sailkapen historikoarekiko. Ekipamendurako ondasunak eta metal arruntak lehen postuetan kokatu ziren berriro. Produktu energetikoen hirugarren postua nabarmentzen da, prezioen igoerak bultzatuta hiru puntu baino gehiago irabazi baitzituzten.

## INPORTAZIOAK GUZTIRA


Milioi euro



Iturria: Eustat

## SALDOA GUZTIRA

Milioi euro





# PMI KONPOSATUA


## PMI konposatuak bi puntu egin zuen gora otsailean

Euroguneko PMIa 52,3an kokatu zen otsailean, iazko maiatzetik izandako erregistrorik handiena (54,8) baita. Otsaileko gorakada hori zerbitzuen sektorearen bilakaerak eragin zuen batez ere, baina manufakturen produkzio indizea ere nabarmen hobetu zen. Zehazkiago azalduta, adierazle hori urtarrileko 48,9tik otsaileko 50,4ra igaro zen, bederatzi hilabetetan posizio onena


izan zuen eta hedapen eremura itzuli zen. Bien bitartean, zerbitzuen merkataritza jarduerak gora egin zuen hirugarren hilabetez jarraian, 50,8tik 53,0ra igaroz. Hazkunde ekonomikoaren isla izan ziren bai enpresen konfiantzaren hobekuntza, bai kostuen inflazioarena, batez ere industria sektorean arindu zena, nahiz eta egia den salmenta prezioak oraindik altuak direla.

### PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2023KO OTSAILA  
**52,3**



### MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




### ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA






## PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




## PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Herrialdekako indizeak erakusten du Frantzia (51,6) eta Alemania (51,1) hedapen eremura itzuli direla. Eremu horretatik kanpo egon dira, hurrenez hurren, iazko urritik eta ekainetik. Euroguneko gainerako eremuan ere emaitzak oso positiboak izan ziren, eta indizea 51,4tik 53,9ra igaro zen. Hori da bederatzi hilabetez izan duen baliorik handiena.

Eurogunetik kanpo, gorakada nabarmena izan zen Erresuma Batuan (ia bost puntu igo zen, 53,0raino) eta AEBetan (50,2), berriz ere hedapen eremura itzuli baitzen. Japoniak, azkenik, aurreko hileko erregistroari eutsi zion (50,7).


## PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



## PMI KONPOSATUA. AEB



## PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit




# SENTIMENDU EKONOMIKOA

## Euroguneko sentimendu ekonomikoa egonkortu zen otsailean

SENTIMENDU EKONOMIKOA.  
EUROGUNEA

2023KO OTSAILA

99,7




Otsailean, ekonomia sentimenduaren indizea egonkortu egin zen. Zehazki, urtarrileko hobekuntza nabarmenaren ondoren, azken hilabeteetan ez da aurrerapen gehigarririk egin, eta ia aurreko datua errepikatu da. Horrela, euroaren eremuko indizea 99,7koa izan zen, urtarrileko datua baino hamarren bat txikiagoa, eta Europar Batasuneko indizeak, berriz, aurreko zifra errepikatu zuen (97,8). Datu horien lehen ira-

kurketak adierazten du euroaren eremua bere batez besteko balioetik (100) oso gertu dagoela, eta Europar Batasuna pixka bat beherago. Oro har, ikusten da industriak eta zerbitzuek indartsu jarraitzen dutela, nahiz eta otsailean atzerapausoa eman zuten; familien konfiantzak, berriz, ezkortasun argia erakusten jarraitzen du, baina haien itzaropenak pixkanaka hobetzen ari diren.


SENTIMENDU EKONOMIKOA.  
EUROPAR BATASUNA

2023KO OTSAILA

97,8




## SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




Euroguneko herrialde nagusien artean, Italiak bizi duen abagune ona nabarmendu beharrekoa da (102,5), aurreko hilabeteko datua errepikatu baitu. Herrialde hori hazten ari da eraikuntzan eta txikizkako merkataritzan, baina industria eta zerbitzuak ere batez besteko balioen gaineratik daude okatuta. Alemanian (97,9) indizea hamarren bat baino ez da hobetu, familien konfiantza hobetu delako, baina oraindik ere ezkortasun handia nabaritzen da beraien artean.

## SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Frantziak atzerakada handia izan du otsailean (97,1), familien artean konfiantza galdu delako eta txikizkako merkataritzan pertzepzio okerragoa hauteman delako. Hala ere, zerbitzuek eta eraikuntzak sendotasuneko irudia eskaintzen dute. Azkenik, Espainiak bi puntu galdu ditu aurreko hilaren aldean, eta 99,5era jaitsi da, batez ere industriaren igurikimenez okerrera egin dutelako. Aitzitik, eraikuntzak gora egiten du indarrez, eta batez besteko balioaren oso gaineratik dago.

## SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



## SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA




Iturria: Europar Batzordea.

# EUROPAKO BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

## Europako ekonomiak atzeraldia saihestuko du 2023an

### EUROPAR BATASUNAREN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Neguko txostenean, Europako Batzordeak bost hamarren hobetu ditu Europar Batasuneko ekonomiaren hazkunde aurreikuspenak 2023rako, %0,8an kokatu arte.


Hazkunde aurreikuspenek ahulak izaten jarraitzen dute, baina zenbatespenak berrikusi ondoren, atzeraldian sartzeko aukera urrundu egin da. Ziurgabetasun handiko agertokia izaten jarraitzen du, baina, orain arte, lan merkatuak indartsu jarraitzen du, eta, aldi berean, gas horniduraren dibertsifikazio handiagoa lortu da, ohi baino negu leunagoaren laguntzarekin.

### BPG. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

%	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2022	2023	2024	2023	2024
<b>Europar Batasuna</b>	<b>3,5</b>	<b>0,8</b>	<b>1,6</b>	<b>0,5</b>	<b>0,0</b>
<b>Eurogunea</b>	<b>3,5</b>	<b>0,9</b>	<b>1,5</b>	<b>0,6</b>	<b>0,0</b>
Alemania	1,8	0,2	1,3	0,8	-0,1
Belgika	3,1	0,8	1,6	0,6	0,1
Espania	5,5	1,4	2,0	0,4	0,0
Frantzia	2,6	0,6	1,4	0,2	-0,1
Italia	3,9	0,8	1,0	0,5	-0,1
Herbehereak	4,4	0,9	1,3	0,3	0,0
Portugal	6,7	1,0	1,8	0,3	0,1
Irlanda	12,2	4,9	4,1	1,7	1,0
Grezia	5,5	1,2	2,2	0,2	0,2
Austria	4,8	0,5	1,4	0,2	0,3


## ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




## FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Aurreikusitako inflazioa %5,6koa da orain eurogunearentzat, lehen aurreikusi zena baino 0,6 puntu txikiagoa, baina Europako Banku Zentralak helburutzat duen tasatik oso urrun. Beraz, interes tasen igoera berriak aurreikus daitezke, baina 2022an baino erritmo txikiagoan. EBko langabezia maila minimo historikoetan dago, %6,1ean, baina soldata nominalen hazkundera inflazioa baino txikiagoa da, eta, beraz, soldaten presioa handitzea edo kontsumoa murriztea espero da, soldaten erosteko ahalmena galtzearen ondorioz.

## KPI. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

%	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2022	2023	2024	2023	2024
<b>Europar Batasuna</b>	<b>9,2</b>	<b>6,4</b>	<b>2,8</b>	<b>-0,6</b>	<b>-0,2</b>
<b>Eurogunea</b>	<b>8,4</b>	<b>5,6</b>	<b>2,5</b>	<b>-0,5</b>	<b>-0,1</b>
Alemania	8,7	6,3	2,4	-1,2	-0,5
Belgika	10,3	4,3	2,7	-1,9	-0,6
Espainia	8,3	4,4	2,3	-0,4	0,0
Frantzia	5,9	5,2	2,5	0,8	0,3
Italia	8,7	6,1	2,6	-0,5	0,3
Herbehereak	11,6	4,5	2,7	0,3	-1,2
Portugal	8,1	5,4	2,6	-0,4	0,3
Irlanda	8,1	4,4	2,1	-1,6	-0,7
Grezia	9,3	4,5	2,4	-1,5	0,0
Austria	8,6	6,6	3,6	-0,1	0,3

Iturria: Europar Batzordea.

# ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2021		2022		
			IV	I	II	III	IV
<b>BPG</b>	<b>5,9</b>	<b>4,3</b>	<b>4,9</b>	<b>5,8</b>	<b>5,0</b>	<b>3,8</b>	<b>2,8</b>
Barneko azken kontsumoa	5,2	—	3,8	2,6	1,5	1,7	—
Familien kontsumoa	5,6	—	4,0	3,2	3,0	2,4	—
Administrazioaren kontsumoa	3,9	—	3,3	0,6	-3,1	-0,7	—
Kapital eraketa gordina	6,0	—	3,0	4,9	5,0	4,9	—
Barne eskaria	5,4	—	3,6	3,2	2,4	2,4	—
Esportazioak	12,7	—	13,5	13,5	13,7	9,2	—
Inportazioak	11,6	—	9,3	10,4	8,5	5,6	—
Lehen arloa	21,9	—	14,5	-1,7	-3,2	8,0	—
Industria eta energia	6,1	—	3,7	6,5	6,1	3,8	—
Eraikuntza	4,5	—	2,5	1,9	1,5	2,5	—
Zerbitzuak	5,8	—	5,5	6,2	5,6	4,3	—
Balio erantsi gordina	5,9	—	5,0	6,0	5,4	4,1	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,1	—	4,1	3,9	3,2	2,8	—
Enplegua	5,9	3,1	5,0	4,9	3,7	2,0	1,9

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2022		2023				2023
	IV	2022	I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>2,4</b>	<b>4,3</b>	<b>2,2</b>	<b>1,7</b>	<b>1,7</b>	<b>2,8</b>	<b>2,1</b>
Barneko azken kontsumoa	1,2	1,8	1,3	1,3	1,3	1,7	1,5
Familien kontsumoa	2,0	2,7	1,3	1,1	1,2	1,7	1,4
Administrazioaren kontsumoa	-1,5	-1,4	1,4	1,9	1,8	1,5	1,7
Kapital eraketa gordina	4,3	4,8	3,3	2,4	2,5	3,3	2,9
Barne eskariaren ekarpena	2,0	2,5	1,8	1,6	1,6	2,1	1,8
Kanpo eskariaren ekarpena	0,4	1,8	0,3	0,1	0,1	0,7	0,3
Lehen arloa	-7,3	-4,6	-0,2	-11,3	-4,5	-2,0	-4,7
Industria	2,9	5,2	1,4	0,3	-0,3	-0,5	0,2
Eraikuntza	1,8	1,7	1,6	2,9	3,3	3,1	2,7
Zerbitzuak	2,8	4,7	2,9	2,7	3,0	2,9	2,9
Balio erantsi gordina	2,7	4,6	2,4	2,0	2,2	2,1	2,2
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,6	2,8	1,9	1,7	1,6	1,4	1,6
Lanaldi osoko lanpostuak	1,0	2,7	1,0	1,0	1,0	1,8	1,2
Landunak (BJA)	1,4	2,0	0,7	0,9	0,8	1,1	0,9

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	1,6	2,0	BBVA	0,8	3,4
Confebask	1,5	—	Ceprede	0,6	1,9
Laboral kutxa	1,3	—			

# ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

## TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2021		2022		
			IV	I	II	III	IV
<b>BPG</b>	<b>5,5</b>	<b>5,5</b>	<b>6,6</b>	<b>6,9</b>	<b>7,8</b>	<b>4,8</b>	<b>2,7</b>
Kontsumo pribatua	6,0	4,4	4,6	5,0	5,1	4,8	2,6
Kontsumo publikoa	2,9	-0,9	-0,1	-1,1	-2,8	-1,8	1,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	0,9	4,3	-1,7	3,6	5,7	5,9	2,0
- Aktibo finko materialak	0,1	4,1	-3,4	2,9	5,5	5,8	2,2
- Eraikuntzan	-3,7	4,2	-3,9	0,3	6,1	6,4	4,1
- Ekipamendu ondasunetan	6,3	3,8	-3,3	6,9	4,4	4,9	-0,9
- Jabetza intelektualaren produktuak	4,7	5,0	6,3	6,8	6,4	6,2	0,9
Nazio eskaria (ekarpena)	5,2	2,8	4,9	4,8	3,6	2,6	0,6
Esportazioak	14,4	14,9	16,4	17,7	20,7	14,7	7,6
Inportazioak	13,9	7,7	11,6	12,1	8,3	8,7	2,2

## BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
Societe Generale	1,8	1,2	Inst. Estud. Económicos	1,2	—
UBS	1,7	2,1	CEPREDE	1,2	2,3
Grupo Santander	1,5	2,3	Econ. Intelligence Unit	1,1	2,2
Oxford Economics	1,4	1,7	FUNCAS	1,0	1,8
Fitch Ratings	1,4	2,4	S&P Global Market Intel.	1,0	1,8
Goldman Sachs	1,4	1,9	CEOE	0,8	—
BBVA	1,4	3,4	Citigroup	0,6	1,1
La Caixa	1,3	1,9	<b>Batez bestekoa</b>	<b>1,2</b>	<b>1,9</b>
Moody's Analytics	1,3	1,9	Gobernua (2022-10)	2,1	—
AFI	1,3	1,5	Espainiako Bankua (2022-12)	1,3	2,7
Unicredit	1,3	1,4	Europar Batzordea (2023-02)	1,4	2,0
Repsol	1,3	—	NDF (2023-01)	1,1	2,4
HSBC	1,2	1,3	ELGA (2022-11)	1,3	1,7

Iturria: Consensus Forecast.

# ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

## BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2021		2022		
			IV	I	II	III	IV
AEB	5,9	2,1	5,7	3,7	1,8	1,9	0,9
Txina	8,1	3,0	4,3	4,8	0,4	3,9	2,9
Japonia	2,1	1,0	0,9	0,6	1,4	1,5	0,6
Kanada	5,0	3,6	3,9	3,2	4,7	3,9	2,6
Europar Batasuna	5,4	3,6	5,1	5,6	4,4	2,5	1,8
Eurogunea	5,3	3,5	4,8	5,5	4,3	2,3	1,9
Alemania	2,6	1,8	1,2	3,5	1,7	1,4	0,9
Frantzia	6,8	2,6	5,1	4,8	4,2	1,0	0,5
Erresuma Batua	7,6	4,0	8,9	10,5	3,9	1,9	0,4
Italia	6,7	4,0	6,6	6,4	5,0	2,7	1,7
Herbehereak	4,9	4,5	6,2	6,5	5,2	3,2	3,3

Iturria: Eurostat eta ELGE.

## CONSENSUS FORECAST. 2023KO OTSAILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2023	2024	2023	2024	2023	2024
AEB	0,7	1,1	3,9	2,5	4,1	4,7
Japonia	1,1	1,1	2,1	1,2	2,5	2,4
Kanada	0,6	1,5	3,7	2,3	5,8	6,1
Europar Batasuna	0,4	1,6	6,2	2,7	—	—
Eurogunea	0,4	1,2	5,5	2,4	6,9	7,0
Alemania	-0,1	1,4	6,2	2,7	5,5	5,4
Frantzia	0,4	1,2	4,8	2,3	7,5	7,5
Erresuma Batua	-0,8	0,7	6,7	2,9	4,4	4,9
Italia	0,4	1,0	6,4	2,2	8,3	8,2
Espania	1,2	1,9	3,9	2,7	—	—
Herbehereak	0,5	1,3	5,1	3,0	—	—

Iturria: Consensus Forecast.